

Maite
duzun
Araba

EGINGO
DUGU.

ehbildu

EH Bilduk ez ditu Amurrioko aurrekontuak babestuko, Gobernuak bere proposamenak baztertu ondoren

Euskara saila indartzea eta lanpostuen balorazioa egitea proposatu zuen EH Bilduk, aurrekontu osoaren % 0,3 baino gutxiago

Amurrio. 2024-01-24 | Amurrioko EH Bildu udal taldeak ez ditu EAJ eta PSEren 2024ko aurrekontuak babestuko, udal gobernuak ez baititu talde subiranistak egindako proposamenak onartu.

EH Bilduren bozeramaile Jon Berganzak adierazi du arreta eman diela aurrekontuan jasotako partida asko EH Bildu udal taldearen ekimenetan oinarrituta daudela. Hala ere, «historiako aurrekonturik handiena izan arren», ia aurrekontua oso konprometituta dago, EAJren inbertsio politikaren ondorioz: «Inbertsio handien eta ezinbestekotzat jotzen ditugun partiden artean, ez dago nondik atera gutxieneko diru-kopuru aipagarri bat».

Proposamen zehatzak

Amurrioko EH Bilduk bi proposamen oso zehatz egin zituen, akordio bat lortzeko asmoarekin: alde batetik, euskara saila indartzea planteatu zuen udal taldeak, horretarako lanaldi osoko euskara-teknikari berri bat kontratatuta. Bestalde, lanpostuen balorazioa ere eskatu zuten, azken antolaketa-aldaketek beharrezko egiten baitute jakitea zein den langile bakoitzaren zeregina.

Bi proposamen horiek 80.000 euroko balioa dute, «aurrekontu osoaren % 0,3 baino gutxiago», EH Bilduren esanetan. «Gure ustez, guztiz beharrezkoak diren bi eskaera dira. Denborak esango du, baina, ia ziurtasun osoz, denbora kontua da horiek aurrera ateratzea, beharrezkoak direlako eta, gainera, kostu guztiz egingarria dutelako», esan du EH Bilduren bozeramaileak, EAJ-PSE udal gobernuaren jarrera salatzearekin batera, ez baitu «oposizioarekin negoziatzeko inolako asmorik».

EH Bildu no apoyará los presupuestos de Amurrio tras rechazar el Gobierno sus propuestas

EH Bildu propuso reforzar el departamento de euskera y realizar una valoración de los puestos de trabajo, menos del 0,3% del presupuesto total

Amurrio. 24-01-2024 | El grupo municipal de EH Bildu en Amurrio no apoyará los presupuestos de PNV y PSE para 2024 tras el rechazo del gobierno municipal a las propuestas del grupo soberanista.

El portavoz de EH Bildu, Jon Berganza, ha señalado que les ha llamado la atención que muchas de las partidas presupuestadas están basadas en iniciativas del grupo municipal de EH Bildu. Sin embargo, «a pesar de ser el presupuesto más grande de la historia», casi todo el presupuesto está comprometido, como consecuencia de la política de inversiones del PNV: «Entre las grandes inversiones y las partidas que consideramos totalmente imprescindibles, no hay de dónde sacar una cantidad mínima destacable».

Propuestas concretas

EH Bildu de Amurrio realizó dos propuestas muy concretas con la intención de alcanzar un acuerdo: por un lado, el grupo municipal planteó reforzar el departamento de euskera, contratando para ello a una nueva persona como técnica de euskera a jornada completa. Por otra parte, también solicitaron una valoración de los puestos de trabajo, ya que los últimos cambios organizativos hacen necesario conocer cuál es el papel de cada persona de la plantilla.

Ambas propuestas están valoradas en 80.000 euros, «menos del 0,3% del presupuesto total», según EH Bildu. «Entendemos que son dos propuestas absolutamente necesarias. El tiempo lo dirá, pero, casi con toda seguridad, es cuestión de tiempo que salgan adelante porque son necesarias y además tienen un coste perfectamente asumible», ha dicho el portavoz de EH Bildu, quien, ha denunciado, además, la actitud del gobierno municipal PNV-PSE, por su «nula intención de negociar nada con la oposición».